

ORDENANTZA, ORDIZIAN OSTALARITZA ETA JOLAS INSTALAZIOAK JARTZEA ARAUTZEN DUENA.

SARRERA.-

Hiri-lurrean ostalaritza nahiz jolaserako jartzen diren instalazioak ugaritzeak arazoa eta molestia dakarkie bizilagunei. Arazoa biderkatu egiten da, gainera, bata bestetik gertu jartzearekin batez ere, eta, nahiz lokal bakoitzari zuzenketa-neurriak jarri bere barrurako, behar bezala konpondu gabe gelditzen da bizilagunei sortzen zaien arazoarekikoa.

Horregatik guztiagatik, bada, ordenantza hau atera eta arautzea pentsatu dugu ostalaritza edo jolas instalazio horietako batetik bestera gutxienez izan behar den tartearena.

1.- ARTIKULUA.- ORDENANTZAK ZER JARDUERA ARAUTUKO DUEN.-

1.- Hemen behean adierazi eta sailkatuko ditugun establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak arautuko ditu ordenantza honek, orokorki ostalaritza edo jolaserako erabilerakotzat hartzen direnak.

I.go sailekoak - Musikaririk ez eta 75 dB-tara (A) intsonorizatuak.

- Alkoholik gabeko edariak eta janak saltzeko baimena dutenak eta sukalde lanik egiteko baimenik ez dutenak. Esate baterako:
 - Dastalekuak, izozkidendak, txokolategiak, txurrodendak, kruasandendak, te aretoak eta antzekoak.

II. sailekoak - Musikadunak eta 75 dB-tara (A) intsonorizatuak.

- “Barrak-jatetxeak”
- “Kafeak” eta “barrak”
- “Kafetegiak”
- “Garagardotegiak”
- “Tabernak”, “ardandegiak” eta “mesoiak”

III. sailekoak - Musikadunak eta 90 dB-tara (A) intsonorizatuak.

- “Taberna beeziak”
- “Jolas” eta “joko aretoak”
- “Wiskytegiak”
- “Klub-ak”
- “Bar amerikarrak”
- “Pub-ak”
- “Disko-barrak”

IV. sailekoak - Musikadunak eta 100 dB-tara (A) intsonorizatuak.

- “Diskotekak” eta “dantzalekuak”
- “Festa aretoak”, ikuskizunak edo erakarpen paseak dituztenak.
- “Kafe-antzokiak” edo bestelako ikuskizundunak.

ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 – 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 – 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 – 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 -2017/09/12).
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 -2020/06/10.)



2.- Establezimenduren bat sail batean baino gehiagotan sartzeko modukoa bada, baldintzarik estuenak bete behar dituen saileko baldintzak bete beharrean izango da.

3.- Bestetik, ezaugarriei begiratuta goian adierazitako sailetan sartzeko modukoa ez izan arren establezimendua ostalaritzarako edo jolaserako erabilerakoa dela joz gero, establezimendua ixteko orduak jartzeko aginpidea duen erakundeak zer itxiera-ordu jartzen duen begiratuko da, eta haren arabera sartuko da, establezimendua antzekoa edo itxiera-ordu berekoa bada, establezimendua jartzeko distantziak arautzeko sail batean edo bestean.

4.- Lokal mota hauei ez zaie ordenantza hau aplikatuko:

- * Era guztietako **“jatetxeak”**, baldin eta barrik ez badute aparte edo beregaintasunez lan egiten duena edo lan egiteko modukoa dena.
- * **“Elkarte gastronomikoak”**, **“jolaserakoak”**, **“kulturalak”** eta antzekoak. (Dena dela, ezin izango dute edaririk saldu edonori).
- * **“Izozkidendak”**, **“txokolategiak”**, **“kruasandendak”** eta antzekoak.
- * **“Jolas”** edo **“joko aretoak”**, **“bolalekuak”** eta **“bingoak”**, edari alkoholodunak saltzen ez badute.
- * Ordenantza honek erasaten dituen ostalaritza edo jolas establezimenduak, baldin eta **“hotel”**, **“merkataritza”**, **“jolas”** edo **“ekipamendu”** jardueretako konplexuetakoak izan eta lursail bat osoa (partzela bat) berek bakarrik hartzen badute.

(Dena dela, jarduera horien ondoan ordenantza honek erasandako beste jarduera batzuk jartzeko utzi behar den tartea uztea arautzeko hartuko dira aintzakotzat jarduera horiek).

2. ARTIKULUA.- ORDENANTZAK NON BALIO IZANGO DUEN.-

Kapitulu honetan jasotako ordenantzek Ordiziako hiri-lurrean balio izango dute.

3. ARTIKULUA.- ESTABLEZIMENDU BATETIK BESTERA GUTXIENEZ UTZI BEHARREKO TARTEA.-

1.- Ordenantza hau indarrean sartu ondoren gutxienerako tarte bat utzi beharko da establezimendu batetik bestera ostalaritza edo jolaserako erabilera izango duen establezimenduren bat irekitzeko lizentzia izateko. Hona hemen gutxienerako tarte horiek:

- * I eta II Saileko establezimenduen artean ez da gutxiengo distantziarik egongo, ezta ere horiek eta gainerako Sailen artean.
- * III. sailekoen artean nahiz hirugarrenen eta laugarrenen artean gutxienez 30 m utzi behar dira.
- * IV. sailekoen artean gutxienez 200 m utzi behar dira.
- * Andra Mari eta Etxezarreta kaleak eremu beteak kontsideratuko dira. Hori dela eta, II, III eta IV Saileko establezimendu berririk ezingo da ireki. Egundauden establezimenduetan

ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 – 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 – 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 – 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 -2017/09/12).
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 -2020/06/10.)



berriztatze lanak eta kategoria aldaketak egitea onartzen da, baina kategoria aldaketa horrek ezin du gaur egungoa dena baino gehiagokoa izan.

2.- Ordenantza hau indarrean sartu baino lehen irekita ziren jarduerak ez dute "gutxieneko tartea"rena bete beharrik, baldin eta ordenantza honetako 6. artikuluko 3. atalean jartzen duen epea (sei hilabete) pasatzen ez bada behintzat. Urte betea pasatuz gero, ordea, derrigor bete beharko dute "gutxieneko tartea"rena ere.

3.-

a) Izaera orokorrek, alkohol-zerbitzua duten 3. taldeko ausazko jokoetarako eta apustu-erakunde lokal bat irekitzeko, ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak betetzeaz gain, gutxienez 500 metroko distantzia eskatuko da (erradialki neurtuta) edozein ikastetxe edota prestakuntza-zentrotik, eguneko zentrotik edo 65 urtetik gorako aisialdi zentroetatik eta kirol-zentroetatik, horiek publikoak zein pribatuak izan.

b) Nolanahi ere, lokalak 0,70 zm-ko zabalera eta 0,35 zm-ko luzera duen errotulu bat instalatu beharko du kanpoaldean. Errotulu horretan, argi eta garbi, "Joko eta apustu-lokala" azaldu behar du, hori baino ez, 0,20 zm-ko luzera eta 0,10eko zabalera duten letrekin, eta adingabeei sartzeko debekua ezarri.

c) Barruan kartel bat ere izan beharko du, ondo ikusteko modukoa eta aurreko atalean adierazitako neurri berekoa: "Jokoan eta apustuan gehiegi aritzeak ludopatia izatea ekar dezake".

d) Erabiltzaileen onarpena kontrolatzeko zerbitzua izan beharko du.

4. ARTIKULUA.- ESTABLEZIMENDU BATETIK BESTERA UTZI BEHAR DEN TARTEA NEURTZEKO IRIZPIDEAK.-

1.- Neurriak hartzeko irizpide orokorrak

- Biderik laburrena eginez neurtuko da establezimendu batetik besterako tartea, kaleen ardatzak jarraituz.


- Lehen dagoen establezimendu batetik berri batera dagoen tartea neurtzeko lerroaren hasierako puntua establezimendu berriko fatxadatik gertuen dagoen establezimendu "zaharreko" fatxadako puntua izango da, eta bukaerakoa, berriz, lokal zaharretik gertuen dagoen lokal berrikoa.

- Era berean, oinezkoak ibiltzen diren kale, galtzada, plaza edo bide guztiek balio izango dute neurketa egiteko, jabari publikokoak edo pribatukoak izan, erabilera publikokoak izanez gero.









2.- Kasu bereziak

a) Neurriak hartzeko hasierako puntua eta bukaerakoa erabakitzeko jarraibideak, lokalen formak kontuan hartuta:





A NEURRIAK HARTZEKO PUNTUAK




ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 - 2000/10/31)
 ALDAKETAK : 2012/07/18 (GAO 185 - 2012-09-26)
 ALDAKETAK : 2012/12/20 (GAO 38 - 2013-02-25)
 ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 - 2017/09/12)
 ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 - 2020/06/10)




b) Neurketa bidea erabakitzea.

* Fatxada-lerro berean edo inguru edo etxe bakar berean diren lokalak.

- Fatxada berean direnak:



- Etxe-sail berean direnak:




$L > L'$ bada, bietan txikiak balioko du.

ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 – 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 – 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 – 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 -2017/09/12).
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 -2020/06/10.)




- Etxe bakarrean direnak:



$L > L'$ bada, bietan txikiak balioko du.

* Kale berean baina beste fatxada-lerro batean direnak:

Lehen esan dugun hasierako puntu horretatik hasi, kalearen erdi edo ardatzera perpedikularki atera eta handik barrena segi harik eta lehen esan dugun bukaerako puntu horren parera iritsi arte, eta handik, perpedikularki bukaera puntura.




ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 - 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 - 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 - 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 - 2017/09/12)
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 - 2020/06/10)



ORDIZIAKO UDALA

* Beste kale eta fatxada-lerro batean direnak:

Adibide honetan bezala neurtu behar da, betiere biderik laburrenako kaleen ardatzak segituz.




* Plazetan barrena:

Lokaletara sartzeko atek lotzen dituen tarterik motzena hartuko da.

* Txaflanak edo alakak izanez gero:

Etxe-sailen bateko alakaren batean izanez gero lokalak, eskema honen arabera hartu behar dira neurriak:



ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 - 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 - 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 - 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 -2017/09/12).
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 -2020/06/10.)



5. ARTIKULUA.- LOKALAK IREKITZEKO ORDUAN IZANGO DIREN LEHENTASUN IRIZPIDEAK.-

1.- Baten batek lizentzia eskatzen badu halako edo bestelako lokal bat irekitzeko, baina hark baino lehen beste batek beste lizentzia bat eskatu duela-eta bi establezimenduren artean utzi beharreko tarterik ez badago, azkenekoa ukatu egingo da eta aurrekoaren tramitazioarekin jarraituko da.

2.- Establezimenduren bat irekitzeko kontsultari baiezkua erantzun izanak ez du esanahi aurreko lerroaldian adierazitako lehentasun eskubidea irabazten denik. Hala, kontsulta egitetik lizentzia eskatu bitartean besteren batek beste lizentziaren bat eskatuz gero, hura izango da aurrena.

6. ARTIKULUA.- JARDUERA ALDATZEA.-

1.- Badago bidea lizentziarekin jarrita dauden jardueren ordezkari sail bereko edo baxuagoko beste jarduera bat jartzeko.

2.- Goragoko sailen bateko jardueraren batera aldatu nahi izanez gero, ordeza, lokal berriak sail horretako "gutxieneko tarte"arena bete beharko du aldatzeko lizentzia izateko.

3.- Jarduera-lizentziaren balioa bukatu edo/eta jarduera utzi ondoren ere izan egingo du lokalak/establezimenduak **–utzi eta sei (6) hilabetean–** lokal edo establezimendu horretan bertan berriz ere jarduera jartzeko aukera –lehen zegoen sail bereko jarduera–, eta eutsi egingo dio jarduera irekitzeko lehentasun-eskubideari ere, gutxieneko tarte horren eremurako beste batzuek ondoren eskatzen dituzten eskabideekiko. Jarduera uztea zehazteko orduan, alabaina, utzi izana beste gorabeherarik ez da aintzakotzat hartuko.

7. ARTIKULUA.- LOKALAK HANDITZEA EDO ZATITZEA.-

1.- Ordenantza hauek araututako establezimenduek badute eskubidea handitzeak egiteko; baldin eta, ordeza, arau hauek betetzen badituzte:

- a) Ordenantza hauetan jarritako gutxieneko tartearena betetzea.
- b) Lokala eta handitutako puska lotuta egotea fisikoki, eta bien titularra, lokalaren eta erantsitako puskaren titularra, bat bera izatea.
- c) Bere kasa jarduteko behar diren gauzak ez izatea erantsitako puska berriak.
- d) Handitzeak ez aldatzea establezimenduaren sailkapenik; eta aldatuz gero, sail horri dagokion gutxieneko tartearena betetzea.

2.- Ordenantza hau indarrean sartu aurretik ere irekitze lizentzia eduki eta lokala irekita izanik gutxieneko tartearena betetzen ez dutenek libre dute lokala handitzen, baina, lokalak duen azaleraren %50a baino puska handiagorik ez daukate eransterik.

Aipatu lokalean, hasierakoan, %50a 30 m² baino gutxiago bada, neurri hori bitarte haunditzeko baimena emango da.



Horrezaz gainera, aurreko ataleko b), c) eta d) ataletan agindutakoa ere bete egin beharko dute.

3.- Indarrean dauden arauetan eskatzen diren agiri tekniko nahiz administratiboak ere aurkeztu egin behar dira handitzeko lizentzia eskatzeko orduan.

4.- Ordenantza honek arautzen duen jarduerarik ez dago ez erdibitzerik ez zatitzerik, eta ezta puskaren bat banatzerik ere ordenantza honek arautzeko moduko jardueraren bat jartzeko.

8. ARTIKULUA.- TOLDOAK.-

1.- Hirigunean kokatuta dauden establezimenduetan onartzen dira, babes berezia, tartekoa eta oinarritzkoa duten eraikinetan salbu, bere zatirik baxuenean gutxienez 2,20 metroko altuera izanik, fatxadaren garapena gainditu ezin duelarik, ezta eremu arrosako zolarekin mugan dagoen zintarriaren barneko zatia ere.

2.- Aldameneko toldo arinen edo holtz kengarrien instalazioa onartuko da gehienezko altuera 1,60 metro izango delarik (honetarako dagokion proiektua aurkeztu beharko da eta Udalak aztertuko du, erabiliko diren material eta bestelakoak kontutan izanik).

3.- 3,50 metro baino gutxiagoko zabalera duten kaleetan ezingo dira jarri.

4.- Karga eta deskarga ordutegian ezingo dira irekita egon.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartzean erregistratu diren eta ebatzi ez diren lizentzia-eskaerak, ordenantza honen mende geratuko dira, eta justifikatu aurretik, proiektuko gastuen kalte-ordaina emango da.

AZKEN XEDAPEN LEHENENGOA.

1.- Ordenantza honetan agindutakoek Ordizian balio izango dute testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hamabost lan-egun pasatutakoan.

ALKATEA,

Behin Behineko IDAZKARIA,

ONARPENA : 1999/06/22 (GAO 207 – 2000/10/31)
ALDAKETAK: 2012/07/18 (GAO 185 – 2012-09-26)
ALDAKETAK: 2012/12/20 (GAO 38 – 2013-02-25)
ALDAKETA 2017/06/29 (GAO 174 -2017/09/12).
ALDAKETA 2019/12/19 (GAO 108 -2020/06/10.)

